

# EAJk Bizkaiko udaletan proposatutako eranskinak EHren ezezkoa jasoko du

ETari «desagertzeko» eskatzen dion testua helarazi diote EHri zenbait herritan

Joseba Arruti / Bilbo

**EAJk aurkeztu dio jada EHri gobernu akordioa duten Bizkaiko udalerrri batzuetan ETaren indarkeria gaitzesten duen idatzia. ETari «desagertzeko» eskatzen dio, eta EHk jakinarazi du ez duela horrelako testurik onartuko. EAK eta EB-IUK jeltzaleek euren kabuz jokatu izana kritikatu dute, eta Basaurin, esaterako, testuaren kontrako jarrera azaldu.**

EUSKAL HERRITARROK taldearekin gobernu lanetan ari den udalerrietan EAJk ETaren indarkeria gaitzesteko udal akordioei egin nahi dien eranskinak nekez egingo du aurrera. Izan ere, EHk ezetza emango dio jeltzaleen proposamenari. Kasu horretan, itunak hautsiko dituztela jakinarazi du EAJk. lekuan lekuko egoerak, dena den, desberdinak izango dira, EAK bere desadostasuna azaldu duelako EAJren ekimenaren aurrean.

EAJren eranskinak bi puntu ditu. Lehenengoan «gizabanakoen eta taldeen eskubideak urratzen dituzten ekintza guztiak» arbuizatzen dira eta «gatazka politikoa konpontzeko elkarrizketaren, demokraziaren printzipioak eta euskaldunen borondatea errespetatzea» eskatzen da.

Bigarrenean, ETari desagertzeko eskatzen zaio —hasieran «exijitu» egiten zitzaien, eta gero aditza aldatzeko prest agertu ziren jeltzaleak—, «euskaldunei eta euren ordezkariari askatasunez eta demokraziarekin jarduteko».

EAJn egoerari buruzko adierazpenik egin nahi izan ez zuten bitartean, Ibon Arbulu HBko Mahai Nazionalako kideak EGUNKARIARI adierazi zionez, «guk ezetza emango diogu EAJren eranskinari. Gure ustez, aitzakia bat besterik ez da; zabaldua trantsizioaren aurkako urratsa».

Arrigorriagako EH izan zen jeltzaleen testua jaso zuen lehena, joan zen ostegunean. Asier Ibarretxe herri horretako EHko zinegotziak atzo EGUNKARIARI esan zionez, «orain gobernu itunari eranskin bat gehitu nahi izatea ez da gauzak egiteko modua,



INIGO AZKONA

Karmelo Landa eta Ibon Arbulu EHko Bizkaiko buruzagiak, Durangoko zinegotzi batekin.

batez ere Udaleko jardunarekin zerikusirik ez duenean».

EAJk, Arrigorriagaz gain, Basaurin, Balmasedan eta Berrizen gobernatzen du EHrekin; baita Bermeon eta Sopuertan ere, baina azken biotan alkatea EAKoa da.

Basaurin EAJ atzo arratsaldean bildu zen EB-IUekin lehenengo eta EHrekin ondoren. Izan ere, udalerrri honetan EAJ-EAK EHrekin eta EB-IUekin batera osatzen dute gobernu batzordea. EB-IUK testu alternatibo bat aurkeztu zion jeltzaleen idatzari, nahiz eta indarkeria gaitzetsi eta ETaren desegitea eskatzen duen bere agerian.

txostena

## Udal gobernu akordioari eranskina

• Ondorengoa da EAJk Arrigorriagako EHko zinegotzietan aurkeztu dien testua, beste zenbait udaletara ere eramango dena:

■ Gure udalerriko gobernu akordioa sinatu daben alderdiek, gaur egun indarkeria zein sarri azaltzen dan ikusirik, indarkeria gaitzesten dogula adierazten dogu eta gainera:

1.- Gizabanakoen eta taldeen eskubideak zaurtzen dabazan ekintza eta adierazpen guztiak arbuizatzen doguz. Gure ustez, alkarrizketa, demokraziaren printzipioak eta euskaldunen borondatea errespetatzea dira gure gizarteko gatazka politikoa konpontzeko bide bakarrak.

2.- ETari desagertu dadila eskatzen dautsugu eta itxi daiela euskaldunei eta euren ordezkariari askatasunagaz eta demokraziagaz jarduten.

## Amurrioko Udalak aurrekontuak onartu ditu, EA, EAJ eta EHren bozekin

Efe / Gasteiz  
AMURRIOKO UDALAK aurretengo aurrekontuak onartu zituen atzo egindako osoko bilkuran, EA, EAJ eta EHren aldeko bozekin, PSE-EEren abstentzioarekin eta PPren aurkako botoarekin. Hiru alderdi abertzaleek osatzen dute gobernu batzordea Amurrioko Udalean, eta Pablo Isasi Eusko Alkartasunako kidea da bertako alkatea duela hamabi urte-tik.

Bozketari ekin aurretik

PPko bozeramaile Juan Carlos Ruizek esan zuen aurretiko legealdian aurrekontuan «anitzagoak» zirela eta «Amurrioko Udalean gobernu ituna Lizarrako itunaren dinamikarekin bat» datorrela.

Pablo Isasi alkateak erantzun zion PPko zinegotziari, eta bera alkatetzan dagoenetik alderdi horrek aurrekontuen alde sekula ez duela egin.

Euskal Herritarrok taldeko bozeramaile Txabi Gau-

naren ustez, «oro har aurrekontuak bat datoz udal baten barruan funtsezkotzat jotzen ditugun oinarriekin». Horrez gain, PPren jokabidea kritikatu zuen alderdi horretako kideak ez direlako azaldu aurrekontuak lantzeko eta eztabaidatzeko egingo dako bileretara.

Amurrioko Udalak 2000. urterako atzoko bilkuran onartutako aurrekontua 2.789 milioi pezetakoa izango da, iazkoa baino 400 milioi gehiagokoa.

## Fontaine prest agertu da Euskal Herrira etortzeko, egoera politikoa ezagutzera

Erredakzioa / Donostia

Nicole Fontaine, Europako Parlamentuko Presidentea, prest agertu zen atzo, «Espainiako agintariekin oniritzia emanez gero», Euskal Herrira etortzeko, ETaren indarkeria gaitzetsi eta egoera politikoaren berri izateko.

Durangoko PPko zinegotzi Jesus Maria Pedrosaren hilketa gaitzetsi zuen atzo Fontainek Strasburgen, eta parlamentarioen arteko eztabaida sortu zuen gaiak. Koldo Gorostiagak, EHko eurodiputatuak, Pedrosaren heriotza sentitzen duela esan zuen eta «gaitzespenen dinamika okerrean» ez sartzeko eskatu zuen, «Nelson Mandela, Bakearen Nobel sariduna, biolentzia ez gaitzesteagatik 25 urtez kartzelan egon zela» gogoratuz.

Gorostiagaren hitzak ez zitzaizkien gustatu han bildutako diputatu espainiarrei. Hala, Enrique Baron sozialistak ironiaz betetako zorionak eskaini zizkion Gorostiagari «zinegotzi jator baten hilketarik doluminak emateagatik», eta IUko Alonso Puertak lotsagarritzat jo zuen «Gorostiaga Mandelaren ondoan jartzea», Hego Afrikako agintariak bere herriaren borondatea defendatzen zuen bezala, euskal herritarren borondatea «haiek aukeratutako politikariek, eta ez garondan tiroak ematen dituztenek» defendatzen dutela gaineratuz.

Josu Ortuondok, EAJko eurodiputatuak, Pedrosaren erahilketa salatu zuen, baina «Euskadiko biztanlegoaren zati handi bat gaur egungo egitura juridikoarekin gustura ez dagoenez», arazoa politikoa dela onartu beharra gogoratuz.

Bestalde, Nicole Fontainek azaldu zuen EAera etortzeko asmoaren aurrean kontent agertu zen Gorka Knörr EAKo eurodiputatuak. Knörrren ustez bisitarako deialdia EAEko parlamentuak egin behar luke, eta Nicole Fontaine «alderdi politiko guztiekin eta lehendakariarekin elkarrizketatu beharko litzateke», EAEko benetako egoeraren ezaguerazabala izateko.